

**Bizkaiko Lurralde Historikoaren
Erakunde Autonomo eta Foru
Sozietate Publikoen Kontu
Orokorren Fiskalizazio txostena**

**Informe de Fiscalización de las
Cuentas Generales de los
Organismos Autónomos y
Sociedades Públicas Forales del
Territorio Histórico de Bizkaia**

2000

AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA	5
I. ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOAK	7
I.1 Gizarte Laguntzarako Foru Erakundea (GLFE/IFAS)	7
I.2 Bizkaiko Lurralde Azterlanen Institutua (BLAI/IETB)	8
II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMAREN ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK	9
II.1 Gizarte Laguntzarako Foru Erakundea (GLFE/IFAS)	9
II.2 Bizkaiko Lurralde Azterlanen Institutua (BLAI/IETB)	11
III. ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN KONTUAK (PEZETAN)	12
III.1 Gizarte Laguntzarako Foru Erakundearen Kontuak (GLFE/IFAS)	12
III.2 Bizkaiko Lurralde Azterlanen Institutuaren Kontuak (BLAI/IETB)	13
IV. ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN KONTUAK (EUROTAN)	14
IV.1 Gizarte Laguntzarako Foru Erakundearen Kontuak (GLFE/IFAS)	14
IV.2 Bizkaiko Lurralde Azterlanen Institutuaren Kontuak (BLAI/IETB)	15
V. FORU-SOZIJETATE PUBLIKOAK ETA ONLAE MERKATARITZAKO ERAKUNDE AUTONOMOA	16
V.1 Legeak Betetzeari buruzko Iritzia	16
V.2 Kontuei Buruzko Iritzia	17
VI. FORU-SOZIJETATE PUBLIKOEN BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK	20
VI.1 Kontratazioa	20
VI.2 Beste Alderdi Batzuk	20
VII. FORU-SOZIJETATE PUBLIKOEI ETA ONLAE MERKATARITZAKO ERAKUNDE AUTONOMOARI BURUZKO KONTUAK (PEZETAN)	22
VIII. FORU SOZIJETATE PUBLIKOEN ETA ONLAE-REN KONTUAK (EUROTAN)	24

INTRODUCCIÓN.....	26
I. ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS.....	28
I.1 Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS).....	28
I.2 Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia (IETB).....	29
II. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	30
II.1 Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS).....	30
II.2 Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia (IETB).....	32
III. CUENTAS DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS (PTAS.).....	33
III.1 Cuentas del Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS).....	33
III.2 Cuentas del Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia (IETB).....	34
IV. CUENTAS DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS (EUROS).....	35
IV.1 Cuentas del Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS).....	35
IV.2 Cuentas del Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia (IETB).....	36
A. ANEXOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO IFAS.....	37
A.1 Presupuesto y Modificaciones.....	37
A.2 Tasas y Otros Ingresos.....	37
A.3 Ingresos por Subvenciones.....	38
A.4 Personal.....	38
A.5 Compras y Servicios.....	39
A.6 Inversiones Reales.....	39
A.7 Tesorería.....	40
A.8 Patrimonio.....	40
A.9 Contratación.....	41
B. ANEXOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO IETB.....	42
B.1 Contratación.....	42
V. SOCIEDADES PÚBLICAS FORALES Y EL ORGANISMO AUTÓNOMO MERCANTIL ONLAE.....	43
V.1 Opinión sobre el Cumplimiento de la Legalidad.....	43
V.2 Opinión sobre las Cuentas.....	44

VI. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN DE LAS SOCIEDADES PÚBLICAS FORALES.....	47
VI.1 Contratación.....	47
VI.2 Otros Aspectos.....	47
VII. CUENTAS DE LAS SOCIEDADES PÚBLICAS FORALES Y DEL ONLAE (PTAS.)	49
VIII. CUENTAS DE LAS SOCIEDADES PÚBLICAS FORALES Y DEL ONLAE (EUROS)	51
C. ANEXOS DE LAS SOCIEDADES PÚBLICAS FORALES Y DEL ONLAE ...	53
C.1 Plantilla Media en el ejercicio 2000.....	53
C.2 Endeudamiento a 31.12.2000.....	53
C.3 Estado de Ejecución a 31.12.00 de las Obras Adjudicadas por Bizkaiko Bideak, SA	53
C.4 Contratación.....	55
ALEGACIONES	57

Vitoria-Gasteiz, 2001eko uriazen 22a
Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2001

SARRERA

BFaren erakundeen administrazioari buruzko 2000ko Urtealdirako txosten hau Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren –aurrerantzean HKEE/TVCP– 1/1998 Legearen arabera egin da.

Fiskalizazioak honako alderdiak hartzen ditu:

- Legeari dagozkionak:

GLFE/IFAS eta BLAI/IETBri dagokienez, honakoa egiaztatu da: aurrekontuei, zorpetzeari, finantza-eragiketei, pertsonalari, obren eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen eta laguntza publikoen kontzesioari, eta zuzenbide publikoko diru-sarrerei aplikagarri zaien araudia aplikatu dela.

ONLAE erakunde autonomoari eta foru-sozietate publikoei dagokienez, aurrekontuen legezkontasuna betetzei eta aplikagarri zaien kontratazioari buruzko araudia –APKL eta 99/1996 FD– betetzei buruzko txostenak berrikusi dira. Txostenean ez da aztertu pertsonalaren kontratazioari eta horiei ematen zaien ordainsariei buruzko legezkontasuna, egiteko dagoen berariazko txosten batean aztertuko baita.

- Kontabilitateari dagozkionak:

GLFE/IFAS eta BLAI/IETBri dagokienez, honakoa aztertu da: Kontu Orokorra aplika daitezkeen kontabilitateko printzipioekin bat etorritik prestatu den.

ONLAE erakunde autonomoari eta foru-sozietate publikoei dagokienez, berriz, auditoriako txostenak berrikusi eta egoki iritzi diogun beste edozein prozedura aplikatuz aztertu da.

Ez da gastu publikoaren arrazionaltasuna bere osotasunean aztertu, ekonomia eta eraginkortasun irizpideak kontuan hartuta; baina txostena egiterakoan, atal horri buruz aipatutako alderdiak txosteneko II. eta V. ataletan adierazten dira.

BFaren erakundeen administrazioa honako erakundeek eta sozietateek osatzen dute:

- Gizarte Laguntzarako Foru Erakundea (GLFE/IFAS) arduratzen da BFaren menpe dauden gizarte-laguntzarako zentroak kudeatzeaz.
- Bizkaiko Lurralde Azterlanen Institutuak (BLAI/IETB) nagusiki ikerketak egiten ditu, eta lurralde-antolakuntzari, hiri-plangintzei eta abarri buruzko aholkularitza ere eskaintzen du.
- ONLAE merkataritzako erakunde autonomo bat da, eta Estatuko Loterien eta Apustuen Erakunde Nazionalak Bizkaian duen delegazioaren ardura du.
- BFaren sozietate publikoak, hau da, kapital sozialean %50 baino partaidetza handiagoa dutenak hauek dira –parentesi artean azaltzen da BFAk sozietatean zenbateko partaidetza duen–:

- Abandoibarra, S.A. (%100): egoitza berriaren eraikuntzaz eta higiezinak besterentzeaz arduratzen da.
- Azpiegitura, S.A. (%100): enpresa-guneak sortzeaz eta kudeatzeaz arduratzen da.
- Basalan, AB (%100): basoko lanez eta natura kontserbatzeko lanez arduratzen da.
- BEAZ, S.A. (%66,25): enpresa-jarduera berritzaileak prestatzeko eta garatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu.
- Bikakobo-Aparcabisa (%79,19): kamioientzako disuasioko aparkalekuez arduratzen da.
- Bizkaiko Bideak, S.A. (%100): bideko azpiegiturak proiektatu, eraiki, kontserbatu, eta ustiatzeaz arduratzen da, bai eta jarduera urbanistikoak eta higieziinei buruzko jarduerak egiteaz ere.
- Bizkailur, S.A. (%100): lurzoru industrialia sustatzen du.
- Boroa, Sociedad de Gestión, S.A. (%100): industria-gune bateko lursailen jarduera urbanistikoak kudeatzen ditu.
- Centro de Diseño Industrial, S.A. (DZ) (%100): enpresei diseinu industrialaren alorreko zerbitzuak eskaintzen dizkie.
- Euskalduna Jauregia, S.A. (%100): musika- eta kongresu-jauregia eraikitzeaz eta kudeatzeaz arduratu zen.
- Garbiker, AB (%100): hondakin solidoen tratamenduaz arduratzen da.
- Lantik, S.A. (%100): foru-administrazioko informatika-zerbitzuen ardura du.
- Parque Industrial Abanto y Ciervana, S.A. (%82,5): lurzoru industrialia sustatzen du.
- Sala de Exposiciones de Rekalde, SL (%100).
- SEED Capital de Bizkaia, S.A. (%50,62): ondareen eta kapital/arrisku fondoek kudeaketaz arduratzen da.

Sozietate horietaz gain, BFAk gehiengoa du Boroa-16, S.A., eta Estación Intermodal de Abando Gestión del Proyecto, S.A., enpresetan. Bi enpresa horien finantza-egoera ez da aurkeztu biak ere kitapen-prozeduran baitaude.

I. ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOAK

I.1 GIZARTE LAGUNTZARAKO FORU ERAKUNDEA (GLFE/IFAS)

I.1.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iritziz, GLFE/IFASek 2000ko Urtealdiko jarduera ekonomiko finantzarioa arautzen duen araudia ondo bete du.

I.1.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1.- GLFE/IFASen kontuetan ez dago kobratu gabe dauden saldoak ordaintzeko zuzkidurarik; beraz, 2000-12-31ko diruzaintza-soberakinetik gutxi gorabehera 58 milioi pezeta (349 mila €) gutxitu behar dira.

2.- GLFE/IFASeko Gobernu Batzordeak 2000ko azaroaren 24ko bileran erabaki zuen 1999 eta 2000. urteetan txandaka lanean aritu ziren ordezkotz langileei beren lanorduetatik kanpo sartutako orduengatik konpentsazio ekonomiko bat ematea. GLFE/IFASeko 2000ko kontuetan ez zen aurreikusi kontzeptu horrengatik ordainketak egiteko diru-partidarik, eta ordainsari horiek ez dira ordaindu txosten hau egin den artean, bederen. Kontzeptu horrengatik 1999an ordaindu beharreko diru-kopurua 94 milioi pezetakoa izan da (565 mila €).

Epaitegiaren iritziz, 1 eta 2. paragrafoetako salbuespenetan izan ezik, GLFE/IFASeko kontuek 2000ko Urtealdiko jarduera ekonomikoen alderdi adierazgarrienak argi eta garbi adierazten dituzte; alegia, ondarearen eta Urtealdiaren amaierako finantza-egoeraren irudi zuzena eskaintzen dute.

I.2 BIZKAIKO LURRALDE AZTERLANEN INSTITUTUA (BLAI/IETB)

I.2.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Pertsonala.

Lanpostuen zerrendetan (LZ) aldi bateko langileentzako lanpostu bat ez da jasotzen, eta horrek, Euskal Funtzio Publikoaren Legeko (EFPL) 14. artikuluan ezarritakoa ez du errespetatzen.

2.- Kontratazioa (ikus B.1).

2000. urtean esleitu ziren 7 kontratari aplikagarri zaizkien legezko prozedurak egiaztatu ditugu, eta ez dugu ez-beetze garrantzitsurik aurkitu. Kontratu horien zenbatekoa 60 milioi pezetakoa zen (361 mila €).

Epaitegiaren iritziz, BLAI/IETBk 2000ko Urtealdiko jarduera ekonomiko finantzarioa arautzen duen araudia ondo bete du, 1. atalean zehaztutako ez-betetzea izan ezik.

I.2.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegiaren iritziz, BLAI/IETBko kontuek 2000ko Urtealdiko jarduera ekonomikoen alderdi adierazgarrienak argi eta garbi adierazten dituzte; alegia, ondarearen eta Urtealdiaren amaierako finantza-egoeraren irudi zuzena eskaintzen dute.

II. BARNE-KONTROLERAKO SISTEMAREN ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

II.1 GIZARTE LAGUNTZARAKO FORU ERAKUNDEA (GLFE/IFAS)

II.1.1 KONTRATAZIOA (IKUS A.9)

- 2. kapituluaren aztertutako kontratu guztien klausula administratibo partikularren pleguan, urtebeteko berme-epea ezarri da; baina kontratu horietako lautan, zuzkiduraren eta kontratuaren amaieran itzuli da fidantza, urtebeteko epe hori igaro aurretik, alegia.

Kontratu horien izaera dela bide, ez dago fidantzaren itzulera luzatu beharrik. Eta beraz, ez-betetze kasurik eman ez dadin, administrazioko baldintza zehatzen plegutik puntu hori ezabatzea gomendatzen dugu.

- Elikagaien eta garbitzeko produktuen zuzkidura-kontratuen fakturak berrikusterakoan, eskaintako produktu-sortetan zerrendatu gabeko zenbait produkturen zuzkidurak egin direla konturatu gara.

Hutsune horiek eragotzi nahian, lehiaketan GLFE/IFASeko zentro guztiak gehitzea eta produktuen katalogoa gehitzea gomendatzen dugu.

- Leioako egoitza erreformatzeko espedientean -40 milioi pezetan esleitu zen-, ez da jasotzen obrari buruzko planing-a.
- Espedienteetako eskaintza ekonomikoa balioesterakoan, bi irizpide erabili direla konturatu gara. Nahiz eta bi irizpideen arteko desberdintasunak hain nabarmenak izan ez, eta nahiz eta beste irizpidea erabili izan esleipenduna aldatu ez, egokiena kontratazio-espediente guztiei balioespen-formula bakarra aplikatzea izango da. Horrekin, hain zuzen, formula desberdinak aplikatzearen ondorioz esleipen-proposamenak aldatzea eragotziko da.

II.1.2 PREZIO PUBLIKOAK

- Ordaindu gabeko erreziboak ordainarazteko barneko zerga-bilketa prozedura eraginkorrik ez dago. 2000ko abenduaren 31ra bitarteko ordaindu gabeko erreziboen zenbatekoa 70 milioi pezetakoa da. Nahiz eta Ogasun eta Finantza diputatuak maiatzaren 29ko 1684/1991 FA bidez, GLFE/IFASi zerga-bilketa organo izaera eman, organo horren administrazio-egitura ez da aski premiamendu-prozedura kudeatzeko.
- 2000. urtean ez dira eguneratu laguntzak jasotzen dituzten eta prezio publiko osoa ordaintzen ez duten egoiliarren kuotak; izan ere, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (INSS) ez baitu egoiliar horien pentsioen igoerari buruzko informaziorik eman.

II.1.3 BESTE HUTSUNE BATZUK

- GLFE/IFASek diru-sarreraren aurrekontuetan ez du inolako aldaketarik egin; hasierako aurrekontua aurrekontu-oreka printzipioa erabiliz egin bada ere, ondoren, kontabilitateari buruzko erregistroak egiterakoan ez da printzipio berdina mantendu.
- Lanpostu-zerrendan (LZ) ez da zehazten lanpostu horretarako behar den titulazioa, ez eta kategoria ere; eta 6/89 EFPLko 15.1 d) artikulua arabera, zehaztu beharko litzateke.
- GLFE/IFASek diruzaintzako saldotzat 2000. urtean kontu-korronteek sortutako interesek hartzen ditu, ordaindu diren edo ez kontuan hartu gabe; eta hori ez da zuzena.

Nahiz eta kontuetan eragin nabarmenik izan ez, kobratzeko dauden kontuetan kobratzeko dauden sortutako interesen aipamena egitea gomendatzen dugu.

- GLFE/IFASek 24 banku-kontu ditu zentroetako gastuentzat. Dirua aurreratzen dute, justifikatutako aurrerapenak, eta fondo finkoko zenbatekoaren arabera aurrekontuetatik kanpo erregistratzen dira. 2000ko abenduaren 31ko diruzaintzako saldoan ez dira azaltzen kontu horietako benetako saldoak, 7 milioi pezeta ingurukoak. Fondoak baimendutako edozein pertsonak erabil ditzake bakoitzak bere aldetik eta besteen baimenik gabe.

GLFE/IFASek beharrezko aginduak eman beharko litzuzke baimendutako kontuak GLFE/IFASeko diruzaintzan gehitzeko; baita fondoak erabiltzeko sinadura mankomunatuak erabiltzeko ere; horrela, zentroari –ahal den neurrian behintzat– dirua aurreratzea murriztuko litzateke.

- Inbentarioan ez dira aipatzen Santurtziko etxe funtzionalerako eskuratutako hiru higiezinetatik bi (horiek 16 milioi pezetako kostua izan zuten. Era berean, Portugaleteko Udalak adin txikikoentzat lagatuko bi udal etxebizitzetara alta eman zaie inbentarioan, eta pezeta leko balioa jarri zaie. Inbentarioan azaltzen den zenbatekoa GLFE/IFASek egindako hobekuntza-obrei dagokie.
- GLFE/IFASek zentroetan lan egiten duten langileen pentsio-sistemetara ekarpenak egiten ditu Pentsio Fondoei eta Planei buruzko 8/1987 Legeko Azken Xedapenaren arabera; Lege hori Aseguru Pribatuaren Ordenazioari buruzko 30/1995 Legearen bidez aldatu zen. Aldaketa horren aurka konstituzio-kontrakotasun arazoa sustatu zuen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak; eta beraz, nolabaiteko legeko ziurgabetasuna sortzen du horrek.

II.2 BIZKAIKO LURRALDE AZTERLANEN INSTITUTUA (BLAI/IETB)

II.2.1 KONTRATAZIOA (IKUS B.1)

- 5 milioi pezetako zenbatekoa duen espediente batean, ez da jasotzen esleipendunak kontratatzeko debekurik ez duela dioen aitortzen.

III. ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN KONTUAK (PEZETAN)

III.1 GIZARTE LAGUNTZARAKO FORU ERAKUNDEAREN KONTUAK (GLFE/IFAS)

	2000KO URTEALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA		Miloi pta.
	HASIERAKO AURREKONTUAK	AMAIERAKO AURREK.	ESKUB./ OBLIGA.
3.- Tasa eta prezio publikoak	465	465	419
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	5.388	5.388	5.321
5.- Ondarearen diru-sarrerak	18	18	22
6.- Inbertsioen besterentzeak	-	-	-
7.- Kapitalaren transferentziak eta dirulagun.	120	118	
8.- Finantza-aktiboen aldaketak	35	35	37
9.- Finantza-pasiboen aldaketak	169	169	-
LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK	6.195	6.195	5.917
1.- Pertsonalaren gastuak	4.867	4.867	4.634
2.- Gastu arruntak	1.135	1.159	950
3.- Finantza-gastuak	-	-	-
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	8	13	13
6.- Inbertsio errealak	150	219	174
7.- Kapitalaren transferentziak eta dirulagun.	-	-	-
8.- Finantza-aktiboen aldaketak	-	-	-
9.- Finantza-pasiboen aldaketak	35	35	31
AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	6.195	6.293	5.802
ITXITAKOEN ALDAKETAK			-
DIRUZAINZAKO GERAJINA 00.01.01			495
DIRUZAINZAKO GERAJINA 00.12.31			610

EGOERA-BALANTZEA	Miloi pta.	
	2000	1999
Erabil. orokor. biderat. ibilgetua	-	-
Ibilgetu ez-materiala	-	-
Ibilgetu materiala	4.067	4.078
Finantza-ibilgetua	-	-
Zordun jabeak	269	326
Zordun ez-jabeak	-	-
Finantza-inbertsioak	65	71
Diruzaintza	946	720
AKTIBOA	5.347	5.195
Ondarea + emaitzak	2.592	2.560
Lagapen bideko ondarea	2.175	2.103
Lagatako ondarea	(41)	(36)
Dirulaguntzak	-	-
Erabilera orokorreko ondarea	-	-
Jasotako fidantzak eta gordailuak	1	2
Erakunde publiko hartzekodun	150	146
Hartzekodun jabeak	469	418
Hartzekodun ez-jabeak	1	2
PASIBOA	5.347	5.195

GALEREN/IRABAZIEN KONTUA	Miloi pta.	
	2000	1999
Salmentak	-	-
Zerbitzuen eskaintza	402	396
Bestelako ustiaketen diru-sarr.	17	18
BFaren dirulaguntza arruntak	5.321	5.042
BFaren kapitalaren dirulaguntzak	118	75
Bestelako dirulaguntzak	-	-
Finantza diru-sarrerak	22	11
Beste diru-sarrerak	-	-
DIRU-SARRERAK	5.880	5.542
Erosketak	-	-
Pertsonal-gastuak	4.637	4.434
Kanpoko zerbitzuak eta zergak	948	923
Emandako diru-laguntzak	13	8
Finantza-gastuak	-	-
Amortizazio-dotazioak	156	147
Ordainezint. hornid. aldaketak	-	-
Bestelako gastuak	94	52
GASTUAK	5.848	5.564
EMAITZAK	32	(22)

III.2 BIZKAIKO LURRALDE AZTERLANEN INSTITUTUA (BLAI/IETB)

2000KO URTEALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA		Milioi pta.		
	HASIERAKO AURREKONTUAK	AMAIERAKO AURREK.	ESKUB./ OBLIGA.	
3.- Tasa eta prezio publikoak	-	-	1	
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	177	177	177	
5.- Ondarearen diru-sarrerak	1	1	2	
6.- Inbertsioen besterentzeak	-	-	-	
7.- Kapitalaren transferentziak eta dirulagun.	2	2		
8.- Finantza-aktiboen aldaketak	1	1	-	
9.- Finantza-pasiboen aldaketak	-	-	-	
LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK	181	181	182	
1.- Pertsonalaren gastuak	87	87	81	
2.- Gastu arruntak	91	89	76	
3.- Finantza gastuak	-	-	-	
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	-	-	-	
6.- Inbertsio errealak	2	4	3	
7.- Kapitalaren transferentziak eta dirulagun.	-	-	-	
8.- Finantza-aktiboen aldaketak	1	1	-	
9.- Finantza-pasiboen aldaketak	-	-	-	
AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	181	181	160	
ITXITAKOEN ALDAKETAK				-
DIRUZAINZAKO GERAKINA 2000.01.01	-	-	(4)	
DIRUZAINZAKO GERAKINA 2000.12.31			18	

EGOERA-BALANTZEA	Milioi pta.	
	2000	1999
Erabil. orokor. Bideratut. Ibilgetua...	-	-
Ibilgetu ez-materiala	-	-
Ibilgetu materiala	8	8
Finantza-ibilgetua	-	-
Zordun jabeak	-	-
Zordun ez-jabeak	-	-
Ordainezint. hornid.	-	-
Finantza-inbertsioak	-	1
Diruzaintza	76	12
AKTIBOA	84	21
Ondarea + emaitzak	25	4
Lagapen bideko ondarea	-	-
Lagatako ondarea	-	-
Dirulaguntzak	-	-
Erabilera orokorreko ondarea.	-	-
Erakunde publiko hartzekodun	4	5
Hartzekodun jabeak	55	11
Hartzekodun ez-jabeak	-	1
PASIBOA	84	21

GALEREN/IRABAZIEN KONTUA	Milioi pta.	
	2000	1999
Salmentak	-	-
Zerbitzuen eskaintza	-	-
Bestelako ustiaketen diru-sarr.	-	-
BFaren dirulaguntza arruntak	177	131
BFaren kapitalaren dirulaguntzak	2	4
Bestelako dirulaguntzak	-	-
Finantza diru-sarrerak	1	1
Beste diru-sarrerak	1	-
DIRU-SARRERAK	181	136
Erosketak	-	-
Pertsonal-gastuak	80	79
Kanpoko zerbitzuak eta zergak	76	77
Emandako diru-laguntzak	-	-
Finantza-gastuak	-	-
Amortizazio-dotazioak	4	4
Ordainezint. hornid. aldaketak	-	-
GASTUAK	160	160
EMAITZAK	21	(24)

IV. ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN KONTUAK (EUROTAN)

IV.1 GIZARTE LAGUNTZARAKO FORU ERAKUNDEAREN KONTUAK (GLFE/IFAS)

2000KO URTEALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA			Mila €
	HASIERAKO AURREKONTUAK	AMAIERAKO AURREK.	ESKUB./ OBLIGA.
3.- Tasa eta prezio publikoak	2.795	2.795	2.520
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	32.383	32.383	31.980
5.- Ondarearen diru-sarrerak	108	108	133
6.- Inbertsioen besterentzeak	-	-	-
7.- Kapitalaren transferentziak eta dirulagun	721	721	709
8.- Finantza-aktiboen aldaketak	210	210	222
9.- Finantza-pasiboen aldaketak	1.016	1.016	-
LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK	37.233	37.233	35.564
1.- Pertsonalaren gastuak	29.252	29.252	27.855
2.- Gastu arruntak	6.821	6.966	5.710
3.- Finantza gastuak	-	-	-
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	48	78	78
6.- Inbertsio errealeak	902	1.316	1.044
7.- Kapitalaren transferentziak eta dirulagun	-	-	-
8.- Finantza-aktiboen aldaketak	-	-	-
9.- Finantza-pasiboen aldaketak	210	210	184
AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	37.233	37.822	34.871
ITXITAKOEN ALDAKETAK			-
DIRUZAINZAKO GERAKINA 00.01.01			2.975
DIRUZAINZAKO GERAKINA 00.12.31			3.668

EGOERA-BALANTZEA	Mila €	
	2000	1999
Erabilera orokor. Biderat. ibilgetua ..	-	-
Ibilgetu ez-materiala	-	-
Ibilgetu materiala	24.444	24.509
Finantza-ibilgetua	-	-
Zordun jabeak	1.618	1.959
Zordun ez-jabeak	-	-
Finantza-inbertsioak	388	427
Diruzaintza	5.684	4.327
AKTIBOA	32.134	31.222
Ondarea + emaitzak	15.580	15.386
Lagapen bideko ondarea	13.071	12.639
Lagatako ondarea	(249)	(216)
Dirulaguntzak	-	-
Erabilera orokorreko ondarea	-	-
Jasotako fidantzak eta gordailuak ..	9	12
Erakunde publiko hartzekodun	-	899
Hartzekodun jabeak	2.818	2.512
Hartzekodun ez-jabeak	6	12
PASIBOA	32.134	31.222

GALEREN/IRABAZIEN KONTUA	Mila €	
	2000	1999
Salmentak	-	-
Zerbitzuen eskaintza	2.416	2.380
Bestelako ustiaketen diru-sarr.	105	108
BFaren dirulaguntza arruntak	31.980	30.303
BFaren kapitalaren dirulaguntzak	709	451
Bestelako dirulaguntzak	-	-
Finantza diru-sarrerak	132	66
Beste diru-sarrerak	-	-
DIRU-SARRERAK	35.342	33.308
Erosketak	-	-
Pertsonal-gastuak	27.873	26.649
Kanpoko zerbitzuak eta zergak	5.696	5.547
Emandako diru-laguntzak	78	48
Finantza-gastuak	-	-
Amortizatze dotazioak	935	883
Ordainezint. hornid. aldaketak	-	-
Bestelako gastuak	566	313
GASTUAK	35.148	33.440
EMAITZAK	194	(132)

IV.2 BIZKAIKO LURRALDE AZTERLANEN INSTITUTUAREN KONTUAK (BLAI/IETB)

2000KO URTEALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA			Mila €
	HASIERAKO AURREKONTUAK	AMAIERAKO AURREK.	ESKUB./ OBLIGA.
3.- Tasa eta prezio publikoak	-	-	4
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	1.064	1.064	1.066
5.- Ondarearen diru-sarrerak.....	6	6	10
6.- Inbertsioen besterentzeak.....	-	-	-
7.- Kapitalaren transferentziak eta dirulagun.	12	12	9
8.- Finantza-aktiboaren aldaketak	6	6	2
9.- Finantza-pasiboaren aldaketak	-	-	-
LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK	1.088	1.088	1.091
1.- Pertsonalaren gastuak.....	523	523	484
2.- Gastu arruntak.....	547	535	456
3.- Finantza gastuak.....	-	-	-
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	-	-	-
6.-Inbertsio errealak	12	24	18
7.- Kapitalaren transferentziak eta dirulagun.	-	-	-
8.- Finantza-aktiboaren aldaketak	6	6	-
9.- Finantza-pasiboaren aldaketak	-	-	-
AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	1.088	1.088	1.091
ITXITAKOEN ALDAKETAK			-
DIRUZAINZAKO GERAUNA 2000.01.01	-	-	(26)
DIRUZAINZAKO GERAUNA 2000.12. 31			107

EGOERA-BALANTZEA	Mila €	
	2000	1999
Erabilera orokor. Biderat. ibilgetua ..	-	-
Ibilgetu ez-materiala	-	-
Ibilgetu materiala	46	48
Finantza-ibilgetua	-	-
Zordun jabeak.....	-	-
Zordun ez-jabeak.....	-	-
Ordainezint. hornid.....	-	-
Finantza-inbertsioak.....	-	6
Diruzaintza.....	457	72
AKTIBOA	503	126
Ondarea + emaitzak	152	24
Lagapen bideko ondarea	-	-
Lagatako ondarea.....	-	-
Dirulaguntzak	-	-
Erabilera orokorreko ondarea.	-	-
Erakunde publiko hartzekodun	24	30
Hartzekodun jabeak.....	327	66
Hartzekodun ez-jabeak.....	-	6
PASIBOA	503	126

GALEREN/IRABAZIEN KONTUA	Mila €	
	2000	1999
Salmentak.....	-	-
Zerbitzuen eskaintza	-	-
Bestelako ustiaketen diru-sarr.	-	-
BFaren dirulaguntza arruntak	1.066	787
BFaren kapitalaren dirulaguntzak	9	24
Bestelako dirulaguntzak	-	-
Finantza diru-sarrerak	10	6
Beste diru-sarrerak	3	-
DIRU-SARRERAK	1.088	817
Erosketak	-	-
Pertsonal-gastuak	484	475
Kanpoko zerbitzuak eta zergak.....	457	463
Emandako diru-laguntzak	-	-
Finantza-gastuak.....	-	-
Amortizazio-datazioak	22	24
Ordainezint. hornid. aldaketak.....	-	-
GASTUAK	963	962
EMAITZAK	126	(145)

V. FORU-SOZIESTATE PUBLIKOAK ETA ONLAE MERKATARITZAKO ERAKUNDE AUTONOMOA

V.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

ABANDOIBARRA

Sozietateak publizitaterik eta lehiarik gabe arkitekto baten zerbitzuak kontratatu ditu "Abandoibarrako bulegoetarako dorrearen aurreproiektua" egiteko. Dorre hori izango da BFAren etorkizuneko egoitza. Obra horren zenbatekoa 75 milioi pezetakoa (451 mila €) izango da (ikus C.4).

AZPIEGITURA, S.A.

Sozietate hori 6 milioi pezeta (36 mila €) kostatu den epaiketa batean murgilduta egon da. Gastu hori inolako publizitaterik eta lehiarik gabe kontratatu da (ikus C.4).

BASALAN, AB

Sozietate horrek ibilgailu astunak alokatu ditu, kontratu hori 9 milioi pezeta (54 mila €) kostatu da eta inolako publizitaterik eta lehiarik gabe kontratatu da. Era berean, ibilgailu bat erosi dute -7 milioi pezeta (42 mila €) ordaindu dira-, inolako publizitaterik gabe eta 2 eskaintza soilik aztertu ondoren. Horretaz gain, lorategiak mantentzeko landareen eta loreen hornidura kontratatu da inolako eskaintzarik aztertu gabe (ikus C.4), eta hornidura-kontratu horren zenbatekoa 5 milioi pezetakoa da (30 mila €).

2000. urtean sozietate horrek, batetik, egurra mozten eta arrastatzen 35 milioi pezeta erabili ditu; lan horretan ohiko zenbait hornitzaile aritu da -7 hornitzaile, hain zuzen ere-, eta aldian-aldian lana egin zezakeena aukeratu da. Eta, bestetik, 11 milioi pezeta gastatu ditu erregaitan; erregaia bi hornitzailearen bitartez lortu du. Aipatutako gastu horiek Urtealdi guztietan agertzen dira, eta inolako publizitaterik gabe esleitu dira kontratu horiek (ikus C.4).

BIZKAILUR, S.A.

Sozietateak bi sozietate berri sortzen 336 milioi pezetako (2.019 mila €) inbertsioa egin du. Inbertsio hori ez zegoen aurreikusita sozietatearen 2000ko kapitalaren aurrekontuan, eta kasu horietarako ez du egin 10/1997 FAK bere 90. artikuluan aurreikusitako aurrekontu-aldaketarik.

TVCP/HKEEren iritiz, foru-sozietate publikoek eta ONLAE merkataritzako erakunde autonomoak 2000ko Urtealdiko jarduera ekonomiko finantzarioa arautzen duen araudia ondo bete dute, arestian aipatutako ez-betetzeen kasuetan izan ezik.

V.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

AZPIEGITURA, S.A.

1.- Egoera-balantzeak, 2000ko abenduaren 31n, kobratzeko saldoa duela adierazten du; alegia, 1997ko Urtealdiko BEZ kontzeptuagatik 5 milioi pezeta dituela jasotzeko (30 mila €). Bestalde, ordea, BFAko Ogasun-Departamenduak behin-behineko likidazioa egitean, 19 milioi pezeta (114 mila €) ordaindu behar zituela kalkulatu zion; izan ere, Azpiegiturak jaso zituen ustiapenerako dirulaguntza horiek autokontsumotzat jotzen ditu zerga horretarako, eta ondorioz, BEZri lotuta daude. Azpiegitura S.A. sozietateak behin-behineko likidazio horren aurkako helegitea aurkeztu du EHJANren aurrean.

Ezin dugu jakin 1997ko Urtealdiko likidazioa dela bide aurkeztutako helegitearen azken erabakiaren ondorioz, sozietatearen pasiboan sartu beharreko kopururik izango den ala ez.

2.- TVCP/HKEEren txostenetan ziurgabetasun-egoera bat adierazten da; izan ere, Sozietateak helegitea jarri du gaur egun Lantik S.A. enpresaren egoitza den eraikinaren obra zuzentzeaz arduratu zen enpresa esleipendunaren alde emandako absoluzio-epaiaren aurka. Obra Azpiegitura S.A. enpresak egin zuen 2001eko otsailaren 20an. Bizkaiko Entzutegi Probintzialak enpresa esleipenduna, zati batean edota osotasunean, absolbitu eta Azpiegitura S.A. sozietatea kostak ordaintzera kondenatu du. Epai horren aurka Azpiegitura S.A. sozietateak helegitea jarri du Auzitegi Gorenaren aurrean. Kostak ordaindu ahal izateko, Sozietateak 74 milioi pezetako hornidura egin du (445 mila €); baina hornidura horren balioespenak hori arrazoizkoa den egiaztatzeko adinako euskarri objektiborik ez du.

BEAZ, S.A.

1.- Egoera-balantzeak, 2000ko abenduaren 31n, kobratzeko saldoa duela adierazten du; alegia, 1995, 1996 eta 1997ko Urtealdietako BEZ kontzeptuagatik 43 milioi pezeta (258 mila €) dituela jasotzeko. Bestalde, ordea, BFAko Ogasun-Departamenduak behin-behineko likidazioa egitean, 20, 5 eta 25 milioi pezeta (120, 30 eta 150 mila €) hurrenez hurren ordaindu behar zituela kalkulatu zion; izan ere, BEAZ S.A. enpresak jaso zituen ustiapenerako dirulaguntza horiek autokontsumotzat jotzen ditu zerga horretarako, eta ondorioz, BEZri lotuta daude. BEAZ S.A. sozietateak 1995eko eta 1996ko behin-behineko likidazio horien aurkako helegitea aurkeztu du EHJANren aurrean eta 1997koa FAEAREN (Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa) aurrean. 2000. urtean, EHJANK Sozietatearen aldeko epaia eman zuen, baina BFAk epai horren aurkako helegitea aurkeztu du Auzitegi Gorenaren aurrean; eta gaur egun, epaiaren zain dago.

Ezin dugu jakin 1995, 1996 eta 1997ko Urtealdietako behin-behineko likidazioak direla bide aurkeztutako helegiteen azken erabakiaren ondorioz, ondorioz, sozietatearen pasiboan sartu beharreko kopururik izango den ala ez.

2.- Izandako emaitza negatiboek Sozietatearen fondoak murriztu dituzte, eta Kapital Sozialaren erdia baino txikiagoa izan da murrizketa hori. Ondarezko oreka lehengoratzeko, sozietatea disolbatu beharrik ez izateko, ezinbestekoa izango da BFAk galerak konpentsatzeko ekarpenak egitea.

CENTRO DE DISEÑO INDUSTRIAL, S.A. (DZ)

1.- Egoera-balantzeak, 2000ko abenduaren 31n, kobratzeko saldoa duela adierazten du; alegia, 1995 eta 1997-2000ko Urtealdietako BEZ kontzeptuagatik 50 milioi pezeta (300 mila €) dituela jasotzeko. Bestalde, ordea, BFAko Ogasun-Departamenduak behin-behineko likidazioa egitean, 1995, 1997 eta 1998ko Urtealdiengatik 47 milioi pezeta (282 mila €) ordaindu behar zituela kalkulatu zion; izan ere, CENTRO DE DISEÑO INDUSTRIAL, S.A. (DZ) enpresak jaso zituen ustiapenerako dirulaguntza horiek autokontsumotzat jotzen ditu zerga horretarako, eta ondorioz, BEZri lotuta daude. CENTRO DE DISEÑO INDUSTRIAL, S.A. (DZ) sozietateak 1995eko behin-behineko likidazioaren aurka helegitea aurkeztu zuen EHJANren aurrean, eta 2000ko apirilaren 19ko epaiaren arabera Sozietateari eman zaio arrazoia. Gaur egun, BFAk epai horren aurka Auzitegi Gorenaren aurrean helegitea jarria du. 1997ko behin-behineko likidazioaren aurkako helegitea jarrita dago EHJANren aurrean, baina oraindik ebatzi gabe dago. Era berean, 1998ko behin-behineko likidazioaren aurkako helegitea jarrita dago FAEAREN (Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa) aurrean.

Ezin dugu jakin 1995, 1997 eta 1998ko Urtealdietako behin-behineko likidazioak direla bide aurkeztutako helegiteen azken erabakien ondorioz, ondorioz, sozietatearen pasiboan sartu beharreko kopururik izango den ala ez.

GARBIKER, AB

1.- Europako Batasuneko Kontseiluak zabortegeiak ustiatzen dituzten erakundeentzat emandako 1999/31/EB arteztarauak ezarritako hitzarmenak betetzeak eragindako kostuei aurre egiteko, eta ingurugiroa babestuko dela ziurtatzeko, sozietateak urtean horretarako hornidura-fondo bat jartzea erabaki du. Hornidura horien zenbatekoa, 2000ko abenduaren 31n, 584 milioi pezetakoa zen (3.510 mila €). Ez dago oinarri objektibo aski aurreikusitako hornidura-plana erabakitzeko.

LANTIK, S.A.

1.- Sozietateak bere jarduerak aurrera eramateko erabiltzen duen eraikina ez da sozietatearena. Urteko kontuak formulatu zirenean, eraikina oraindik ez zitzaion esleitu LANTIK S.A. sozietateari, eta sozietatearen aldeko erabilera-eskubidea ere arautu gabe zegoen. Beraz, kontuan izan behar dugu kontu orokorretan adierazitako finantza-egoerak ez duela higiezin horren erabilerak eragindako gasturik barneratzen.

SALA DE EXPOSICIONES DE REKALDE, S.L.

1.- Urtealdian izandako emaitza negatiboek sozietatearen fondoak murriztu dituzte, eta Kapital Sozialaren erdia baino txikiagoa izan da murrizketa hori. Ondarezko oreka lehengoratzeko sozietatea disolbatu beharrik ez izateko, ezinbestekoa izango da BFAk galerak konpentsatzeko ekarpenak egitea.

SEED CAPITAL, S.A.

1.- Egoera-balantzeak, 2000ko abenduaren 31n, kobratzeko saldoa duela adierazten du; alegia, 1997ko Urtealdiko BEZ kontzeptuagatik 1 milioi pezeta (6 mila €) dituela jasotzeko. Bestalde, ordea, BFAko Ogasun-Departamenduak behin-behineko likidazioa egitean, 8 milioi pezeta (48 mila €) ordaindu behar zituela kalkulatu zion; izan ere, SEED CAPITAL, S.A. sozietateak jaso zituen ustiapenerako dirulaguntza horiek autokontsumotzat jotzen ditu zerga horretarako, eta ondorioz, BEZri lotuta daude. SEED CAPITAL, S.A. sozietateak behin-behineko likidazio horren aurka helegitea jarri zuen EHJANren aurrean, eta, gaur egun, azken epaiaren zain dago.

BOROA, SOCIEDAD DE GESTIÓN, S.A.

1.- 2000. urterako Lurralde Historikorako Aurrekontu Orokorrek diote sozietateak garatutako jarduerak etorkizunean Bizkailur S.A. foru-sozietateak kudeatuko dituela eta horien jarraipena egiteaz ere arduratuko dela. Aurrekontu Orokor horiek urtarrilaren 31ko 1/2000 Foru Arauaren arabera onartu ziren. Administratzaileen ustez, jarduera eta aktiboak Bizkailur S.A. sozietateari eskualdatzeak ez dio BOROA, SOCIEDAD DE GESTIÓN, S.A. sozietateari inolako galerarik ekarriko, ez behintzat txosten hau egin den egunean balorazio-zuzenketa egokiak egitea eskatuko duen galerarik. BOROA, SOCIEDAD DE GESTIÓN, S.A. sozietateak kudeaketa-txostenean dio 2001. urtean zehar sozietatea likidatzea aurreikusten duela sozietateak sortu zenean jarritako helburu nagusia betetzear dagoelako.

PARQUE INDUSTRIAL ABANTO Y CIERVANA, S.A.

1.- Sozietatearen administratzaileek sozietatea likidatzeko asmoa dutela adierazi dute, nahiz eta txostena egin den egunean, oraindik horri dagokionean erabaki formalik hartu ez. Urteko kontuak funtzionamenduan dagoen enpresa-printzipioaren arabera formulatu dira; eta baliteke, modurik egokiena ez izatea sozietatea likidatzea aurreikusten duen sozietate batentzat.

Arestian zehaztutako salbuespenengatik eta islatutako ziurgabetasun-egoeren amaiera ezagutzeak bultzatutako edozein doikuntzak izan ditzakeen eraginengatik izan ezik, foru-sozietate publikoen eta ONLAE merkataritzako erakunde autonomoaren urteko kontuek, 2000ko abenduaren 31n, euren ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zintzoa adierazten dute alderdi azpimarragarri guztietan; baita txostena amaitu den egunean amaitutako urteko Urtealdian lortutako eta aplikatutako emaitzei dagokienez ere.

Gainera, urteko kontuak behar bezala interpretatzeko eta ulertzeko beharrezko informazio aski eskaintzen du, eta aurreko Urtealdiko kontabilitateari buruzko printzipioekin eta irizpideekin bat dator.

VI. FORU-SOZIEKATE PUBLIKOEN BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

VI.1 KONTRATAZIOA (IKUS C.4)

EUSKALDUNA JAUREGIA, S.A.

2000ko Urtealdian zehar, makinaria eszenikoaren ordezeko piezak erosi dizkiote lehen makinaria ekarri zuen hornitzaile berari. Ordezko piezak 34 milioi pezeta ordaindu dituzte, eta kontratu hori, inolako publizitaterik eta lehiarik gabe egin da. Zenbait ordezeko pieza zehatz makinariaren hornitzaileak baino ez zituen, baina beste zenbait, ordea, arruntak dira eta beste hainbat hornitzailek ere izan zitzakeen.

Ordezko pieza arrunten katalogoa egitea eta horien horniketa-kontratua esleitzeko lehiaketa egitea gomendatzen dugu.

VI.2 BESTE ALDERDI BATZUK

ABANDOIBARRA, S.A.

Sozietate horren helburu nagusia BFAk Bilbon duen ondare higiezinaren besterentzeaz arduratzea eta egoitza berri bat eraikitzea da.

1999. urtean, sozietateak bulegoetarako eraikin bat eskuratu zuen. Une honetan, eraikin hori BFAko Gizarte-Laguntza departamenduak erabiltzen du BFaren behin betiko egoitza eraiki bitartean. Behin betiko egoitza eraikitzen denean, bulegoetarako erabiltzen zen eraikin hori eta BFAk Bilbon duen ondare higiezin guztia besterenduko du ABANDOIBARRA, S.A. sozietateak. Eraikin hori, sozietatearen balantzean izakinen kapitalean erregistratuta azaltzen da.

2000. urtean sozietateak bulegoetarako eraikin bat 190 milioi pezetatan erosteko konpromisoa hartu zuen. Eraikin hori, 2001. urtean eskuraturako da, eta BFAk erabiliko du behin-behingoan. Jadanik, 57 milioi pezetako aurrerapena egin da. Sozietatearen izakinak atalean jasotzen da aurrerapen horren berri.

Ondasun higiezinak merkataritzako sozietate instrumental baten bidez eskuratzeak eta ondasun horiek sozietate horren ondarearen baitan mantentzeak asko zailtzen du ondasun horien erregimen juridikoa eta babesak; eta, gainera, ondasun horiek eskuratzen dituen BFA denez, ez dute abantaila azpimarragarriarik ematen. Kontuan hartuta sozietatearen ondasunak direla, ondasun horiek ez dute izango jabari publikoko ondasunen babes berezirik (jabari publikoko ondasunak ezin dira besterendu, enbargatu eta preskribatu).

Sozietate instrumentalaren esku ondasunen kudeaketa-jarduerak eta bitartekaritza baino ez uztea gomendatzen dugu, eta inoiz ez ondasunen jabetza. Izan ere, merkataritzako sozietate guztiek hirugarrenen aurrean duten aktibo osoarekin erantzuten dute; eta beraz, jabari publikoko ondasunek duten babes-erregimen berezia galtzen dute.

Gainera, sozietateak 2000ko Urtealdian 1999an eskuratutako bulegoetarako eraikinean Gizarte Laguntzarako Departamentuak erabiltzeko hobetze-lanak kontratatu ditu. Baita altzariak eta horiek garraiatzeko zerbitzuak ere. Eragiketa horien izaera dela bide, egokiena kontratazio horiek BFAk egitea dela iruditzen zaigu.

BIKAKOBO-APARCABISA

Erabilera publikoko lursail baten jabetza-aldaketarako espediente baten ondorioz, sozietateak eskuratutako lursail gehienak –ibilgetu materiala osatzen dutenak– Jabetza Erregistroan inskribatu gabe daude.

BIZKAIKO BIDEAK, S.A.

Sozietate horrek burututako azpiegiturak eraikitzeko kontratuetan eginkizun bat izango da, alegia, kontratistari kudeaketa-gastu kontzeptuagatik BEZak eragindako finantza-gastuak murriztu ondoren geratzen den kontratuaren zenbatekoaren %6 fakturatzea. Kontratistari kontratuaren %6 kobratzeak sozietatearen ustiaketa-gastuak autofinantzatzeko aukera ematen du. Kobratzen den zenbateko hori BFAk obragatik ordaindu beharko duen kostu osoan sartzen da.

BIZKAILUR, S.A.

2000. urtean zehar, sozietateak Zubieta industrialdeko lursailen salmentak eskrituratu ditu (28.894 m²ko azalera 183 milioi pezetatan). Salmenta horiek –inbentarioan (15.139 pta/m²) jasotzen den baino prezio txikiagoan egindakoak– sozietatearentzat 254 milioi pezetako galerak eragin dizkio. Sozietateak ez du salmenta-kontratu horien prezioaren euskarri den tasaziorik eta balioespen-txostenik.

Lursailei saltzeko prezioa jartzeko prozesuan gardentasun handiagoa gomendatzen dugu, baita lursail horiek eskuratzeko aukerei eta baldintzei buruzko publizitate gehiago ere.

VII. FORU-SOZIEKATE PUBLIKOEI ETA ONLAE MERKATARITZAKO ERAKUNDE AUTONOMOARI BURUZKO KONTUAK (PEZETAN)

SOZIEKATE PUBLIKOAK ETA ONLAE 2000

Milioi pta.

EGOERA-BALANTZEA	Abandoib.	Azpiegit.	Basalan	BEAZ	Bikakobo	Bideak	Bizkailur	Boroa	DZ.
Hainbat ek. banatzeko gastuak....	1	-	-	-	9	21	1	-	-
Ibilgetu ez-materiala	-	-	-	86	-	-	-	-	-
Ibilgetu materiala	57	4.619	25	13	4.525	9	7	-	12
Finantza-ibilgetua	-	17	-	13	-	-	345	-	3
Zordunak	84	299	128	106	94	94	70	145	100
Izakinak (lursailak/bestelakoak).....	739	-	16	1	-	-	596	3.240	-
Finantza-inbertsioak	-	701	-	-	-	-	530	203	-
Diruzaintza	1	104	1	170	260	320	71	12	5
Urtealdikako doikuntza	1	1	2	-	2	1	-	-	-
AKTIBOA	883	5.741	172	389	4.890	445	1.620	3.600	120
Harpidetutako kapi. + erretserbak ..	239	8.229	95	80	5.845	200	1.735	3.610	56
Pilatutako emaitzak	(193)	(3.006)	-	(45)	(1.870)	99	(606)	(38)	(18)
Hainbat ek. bana. diru-sarr.	-	159	-	105	-	-	-	-	12
Arrisku eta gastuetarako horni	-	77	-	-	-	-	42	-	-
Zorrek epe luzera	-	29	-	-	35	-	151	-	-
Zorrek kreditu entitateekin	-	-	7	60	657	-	-	-	-
Merkataritzako hartzekodunak.....	837	177	47	48	209	139	15	2	22
Epe motzerako beste hartzek.	-	76	23	141	14	7	283	26	48
Urtealdikako doikuntza	-	-	-	-	-	-	-	-	-
PASIBOA	883	5.741	172	389	4.890	445	1.620	3.600	120

SOZIEKATE PUBLIKOAK ETA ONLAE 2000

Milioi pta.

EGOERA-BALANTZEA	Euskalduna			Parke		Seed			
	Jauregia	Garbiker	Lantik	Indust.	Rekalde	Capital	ONLAE	GUZTIRA	
Hainbat ek. banatzeko gastuak	41	-	9	-	-	-	-	-	82
Ibilgetu ez-materiala	4	6	298	-	187	1	-	-	582
Ibilgetu materiala	12.408	892	672	-	5	3	8	23.255	
Finantza-ibilgetua	-	117	-	-	-	1	-	496	
Zordunak	384	202	884	270	5	10	9	2.884	
Izakinak (lursailak/bestelakoak).....	-	-	16	-	-	-	-	4.609	
Finantza-inbertsioak	-	200	5	-	-	38	66	1.743	
Diruzaintza	1.067	231	84	1	8	12	77	2.424	
Urtealdikako doikuntza	4	2	21	-	4	-	1	39	
AKTIBOA	13.908	1.650	1.989	271	209	65	161	36.114	
Harpidetutako kapi + erreserbak	7.280	506	226	291	1	55	50	28.499	
Pilatutako emaitzak	(453)	21	-	(48)	(1)	(7)	8	(6.157)	
Hainbat ekitald. bana. diru-sarr.	6.743	376	908	-	191	-	-	8.494	
Arrisku eta gastuetarako horni.	-	584	-	18	-	-	-	721	
Zorrek epe luzera	-	-	75	-	-	-	-	290	
Zorrek kreditu entitateekin	-	-	-	-	-	-	-	724	
Merkataritzako hartzekodunak.....	228	64	364	7	15	7	21	2.202	
Epe motzerako beste hartze.	87	99	416	3	3	10	82	1.318	
Urtealdikako doikuntzak.....	23	-	-	-	-	-	-	23	
PASIBOA	13.908	1.650	1.989	271	209	65	161	36.114	

SOZETATE PUBLIKOAK ETA ONLAE 2000

Milioi pta.

EMAITZEN KONTUAK	Abandoib.	Azpiegitura	Basalan	BEAZ	Bikakobo	Bideak	Bizkailur	Boroa	DZ.
Salmentak eta alokairuak	14	398	91	-	387	-	222	-	-
Zerbitzuak eskaintzea	-	376	421	107	115	217	-	-	87
Bestelako ustiak. diru-sarrerak.....	-	2	-	-	-	21	-	-	28
BFaren dirulaguntza arruntak.....	-	-	-	-	-	-	-	-	-
BFaren kapitalerako dirulagun.	-	-	-	-	-	-	-	-	4
Finantza diru-sarrerak	-	18	-	8	10	13	3	10	3
Beste diru-sarrera batzuk	271	535	1	7	5	-	-	-	-
DIRU-SARRERAK	285	1.329	513	122	517	251	225	10	122
Pertsonal-gastuak	14	338	285	159	191	46	65	-	156
Hornikuntzak.....	271	307	180	-	-	-	-	92	2
Kanpoko zerbitzuak eta zergak	-	281	41	154	170	66	19	22	165
Aldaketak izakinetan	-	-	-	-	-	-	463	(111)	-
Trafiko. horni. aldaketak.....	-	3	-	3	10	-	39	-	-
Beste Urtealdietako galerak.....	-	-	-	-	-	-	62	-	-
Amortizatzeko dotazioa	4	343	7	9	169	5	1	-	4
Ibilgetuen horni. aldaketak	-	536	-	-	-	-	-	-	-
Finantza-gastuak	21	-	-	3	31	12	10	1	-
Beste ustiaketa-gastu batzuk.....	72	76	-	-	5	-	-	2	-
GASTUAK	382	1.884	513	328	576	129	659	6	327
EMAITZAK	(97)	(555)	-	(206)	(59)	122	(434)	4	(205)

SOZETATE PUBLIKOAK ETA ONLAE 2000

Milioi pta.

EMAITZEN KONTUAK	Euskalduna			Parke		Seed		ONLAE	GUZTIRA
	Jauregia	Garbiker	Lantik	Industr.	Rekalde	Capital			
Salmentak eta alokairuak	-	-	-	-	2	-	144	1.258	
Zerbitzuak eskaintzea	895	1.002	2.854	-	-	4	-	6.078	
Bestelako ustiak. diru-sarrerak.....	5	12	-	-	9	-	-	77	
BFaren dirulaguntza arruntak.....	-	-	1	-	-	-	-	1	
BFaren kapitalerako dirulaguntzak....	349	50	845	-	2	-	-	1.250	
Finantza diru-sarrerak	10	16	9	-	-	3	5	108	
Beste diru-sarrerak.....	1	52	27	-	5	-	-	904	
DIRU-SARRERAK	1.260	1.132	3.736	-	18	7	149	9.676	
Pertsonal-gastuak	118	340	1.728	-	31	49	124	3.644	
Hornikuntzak.....	-	-	723	-	19	-	-	1.594	
Kanpoko zerbitzuak eta zergak	630	289	680	22	23	19	15	2.596	
Aldaketak izakinetan	-	-	-	(33)	-	-	-	319	
Trafiko. hornik. aldaketak.....	-	395	-	-	-	-	-	450	
Beste Urtealdietako galerak.....	45	2	16	3	-	-	-	128	
Amortizatzeko dotazioa	711	85	533	-	6	1	2	1.880	
Ibilgetuen horni. aldaketak	-	-	45	-	-	-	-	581	
Finantza-gastuak	1	-	11	-	-	-	-	90	
Beste ustiaketa-gastu batzuk.....	-	-	-	19	-	-	-	174	
GASTUAK	1.505	1.111	3.736	11	79	69	141	11.456	
EMAITZA	(245)	21	-	(11)	(61)	(62)	8	(1.780)	

VIII. FORU-SOZIEKATE PUBLIKOEN ETA ONLAE-REN KONTUAK (EUROTAN)

SOZIEKATE PUBLIKOAK ETA ONLAE 2000

Mila €

EGOERA-BALANTZEA	Abandoib.	Azpiegit.	Basalan	BEAZ	Bikakobo	Bideak	Bizkailur	Boroa	DZ.
Hainbat ekit. banatze. gastu.....	6	-	-	-	54	126	6	-	-
Ibilgetu ez-materialak	-	-	-	517	-	-	-	-	-
Ibilgetu materiala.....	342	27.761	150	78	27.195	54	42	-	72
Finantza-ibilgetuak	-	102	-	78	-	-	2.073	-	18
Zordunak	505	1.797	769	637	565	565	421	871	601
Izakinak (lursailak/bestelakoak).....	4.442	-	96	6	-	-	3.582	19.473	-
Finantza-inbertsioak	-	4.213	-	-	-	-	3.185	1.220	-
Diruzaintza	6	625	6	1.022	1.563	1.923	427	72	30
Urtealdikako doikuntzak.....	6	6	12	-	12	6	-	-	-
AKTIBOA	5.307	34.504	1.033	2.338	29.389	2.674	9.736	21.636	721
Harpidetu. kapi + erretserbak.....	1.437	49.456	571	481	35.129	1.202	10.428	21.696	337
Pilatutako emaitzak	(1.160)	(18.066)	-	(270)	(11.239)	595	(3.642)	(228)	(108)
Hainbat ekit. banatzeko gastu.....	-	956	-	631	-	-	-	-	72
Arrisku eta gastuetarako horni	-	463	-	-	-	-	252	-	-
Zorrek epe luzera.....	-	174	-	-	210	-	908	-	-
Zorrek kreditu entitateekin	-	-	42	361	3.949	-	-	-	-
